

Hezkuntza Sailak ikasketa presentzialetara itzulera ikastetxe bakoitzaren ardurapean uzteko erabakia are arduragabeagoa litzatekeela salatzen dugu

EAEko hezkuntza Sailari eskatzen diogu bere ardurak bere gain hartzeko, osasuna bermatuko duten baldintzak ahalbideratzeko eta itzulera neurriak eragileekin negoziatzeko

Hezkuntza Sailburuak pasa den Ostegunean hezkuntzako hainbat eragileri aurkeztutako plana, hezkuntza eragileekin negoziatu eta landu gabeko plana izan da. Plan horretan jaso beharko liratekeen irizpide zein neurriak aplikatu, aurrera eraman, bete eta betearazi beharko dutenen parte hartzerik gabe Hezkuntza Sailak hartutako aldebakarreko erabaki baten aurrean gaude beraz.

Behin plana ezagututa gainera, sindikatuon deialdiari jarraituz gaur burutu dugun bileran hezkuntza eragileok ondorio komun batera iritsi gara, gaur gaurkoz langile zein ikasleen osasuna bermatuz datorren maiatzaren 18tik aurrera itzulera abian jartzeko baldintzarik ez dagoela. Are gehiago, familien zein ikasleen iritzia, langileen ordezkariena bezalaxe, ez dela inolako momentuan kontuan hartu eta osasunaren ardura ere haingan jarri dutela.

Plana, motz geratzen diren segurtasun irizpide orokorregiak jasotzera mugatzen da. Hezkuntza Sailak irizpide orokor horiek betetzeko hartuko diren neurriak ikastetxeekin landu gabe hartu ditu, baita neurri horiek abian jartzeko baliabideak aurrekusi gabe ere, zentruetako zuzendaritzengan neurrigabeko ardura maila ezarri. Itzulera planaren ezaugarri nagusia inprobisazioa, prezipitazioa eta zehazgabetasuna direla esan dezakegu beraz.

Egoera honetan erabateko arduragabekeria litzateke datorrean maiatzaren 18an planteatutako itzulera abian jartzea, langile zein ikasleen osasuna, eta ondorioz gizarte osoarena, arrisku larrian jarriko litzatekeelako.

Planak Hezkuntza Komunitate osoaren gaitzespena eta kritika jaso ditu ezagutzera eman zenetik. Komunikabideen bidez jakin dugunez, eta eragindako presioaren eraginez, badirudi Hezkuntza Sailak bere erabakia aldatu dezakeela. Hezkuntza Sailak Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta DBH4n ikasketa presentzialetara itzultzea edo ez, zein datetan eta zein baldintzetan, ikastetxe bakoitzaren esku uztea planteatuko luke. Erabaki hau are arduragabekia handiagotzat jotzen dugu eragileok sindikatuok. Alde batetik, osasuna bermatu gabe jarraitzen duen bitartean, Hezkuntza sailak ardura guztia ikastetxeen, familien eta ikasleen bizkar gainean jartzen duelako, bere arduraz beste larriki kale eginez. Hezkuntza Sailari dagokio osasuna bermatzeko irizpide zehatzak, protokoloak, neurriak eta hauek aurrera eramateko baliabideak plan egoki batean jaso eta aurreikustea, ondoren ikastetxe bakoitzak bere autonomiaren baitan aurrera eraman ahal ditzan. Bestetik, erabakia ikastetxe bakoitzaren esku utzita, ikastetxe ezberdinetako ikasleen arteko arrakalak sortu edo areagotzeko arrisku argia duelako, batzuk ikasketa presentzialak jasoko lituzketelako eta besteek ez esaterako. Dagoeneko egoera honek ikasleen arteko hezkuntza prozesuetan eragin duena.

Idatzi hau sinatzen dugun sindikatuok, hezkuntza sailari galdegiten diogu bere ardurak bere gain hartzeko, hezkuntza eragile bakoitzarekin, dagokion esparruan, itzulera neurriak negoziatu ditzala eta osasuna bermatzeko neurriak ahalbideratu ditzala.

Euskal Herrian 2020ko maiatzak 12an.



Denunciamos que la decisión del Departamento de Educación de dejar el retorno a las clases presenciales a cargo de cada centro sería aún más irresponsable

Pedimos al Departamento vasco de Educación que asuma sus responsabilidades para posibilitar las condiciones que garanticen la salud y que negocie con los agentes las medidas del retorno

El plan presentado el pasado jueves por la Consejera de Educación a los diferentes agentes educativos ha sido un plan no negociado y elaborado a espaldas de los agentes educativos. Nos encontramos, por tanto, ante una decisión unilateral adoptada por el Departamento de Educación sin la participación de quienes deberán aplicar, llevar a cabo, cumplir y ejecutar los criterios y medidas que debieran recogerse en dicho plan.

Una vez conocido el plan, en la reunión que hemos celebrado hoy siguiendo la convocatoria de los sindicatos, los agentes educativos hemos llegado a una conclusión común, que hoy por hoy no hay condiciones para poner en marcha el retorno a partir del próximo 18 de mayo garantizando la salud de trabajadores y alumnos. Es más, tanto la opinión de las familias como la de los alumnos, al igual que la de los representantes de los trabajadores, no se ha tenido en cuenta en ningún momento y se ha puesto sobre ellos la responsabilidad de la salud.

El plan se limita a recoger criterios de seguridad excesivamente generales que se quedan cortos. El Departamento de Educación ha adoptado medidas para dar cumplimiento a estos criterios generales sin trabajar con los centros, ni prever los recursos para su puesta en marcha, estableciendo un nivel de responsabilidad desproporcionada en las direcciones de los centros. El plan de retorno se caracteriza por la improvisación, la precipitación y la indeterminación.

En esta situación sería una absoluta irresponsabilidad poner en marcha el retorno planteado para el 18 de mayo, ya que se pondría en grave riesgo la salud de las y los trabajadores y estudiantes y, por tanto, la del conjunto de la sociedad.

El plan ha recibido el rechazo y la crítica de toda la Comunidad Educativa desde que se dio a conocer. Como hemos sabido a través de los medios de comunicación, y debido a la presión ejercida, parece que el Departamento de Educación puede haber modificado su decisión. El Departamento de Educación plantearía delegar en cada centro la decisión de volver o no a las clases presenciales en Bachillerato, Formación Profesional y 4º de la ESO, así como decidir en qué fecha y en qué condiciones.

Esta decisión es considerada por los agentes sindicales como una mayor irresponsabilidad. Por un lado, porque mientras sigue sin garantizar la salud, el Departamento de Educación pone toda la responsabilidad sobre los centros escolares, las familias y los alumnos, faltando gravemente a su responsabilidad. Corresponde al Departamento de Educación recoger y prever en un plan adecuado los criterios concretos, protocolos, medidas para garantizar la salud y los recursos para llevarlas a cabo, de forma que cada centro pueda llevarlos a cabo en el marco de su autonomía. Por otro lado, porque dejando la decisión en manos de cada centro, hay un claro riesgo de que se produzcan o aumenten las brechas entre el alumnado de los diferentes centros, ya que unos recibirían estudios presenciales y otros no. Lo que ya ha afectado a los procesos educativos entre el alumnado.

Los sindicatos firmantes de este escrito solicitamos al Departamento de Educación que asuma sus responsabilidades, que negocie con cada agente educativo en el ámbito que corresponda las medidas de retorno y que posibilite medidas para garantizar la salud.

